

BESTELAKO XEDAPENAK

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

1375

AGINDUA, 2026ko martxoaren 12koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren «Auzolandegiak» programa arautu eta programaren 2026. urterako plazen deialdia egiten duena.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.39 artikulua xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du gazte-politikaren arloan.

Halaber, Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legearen 40. artikulua arabera, EAEko administrazio publikoek sustatuko dute, beren eskumenen esparruan, gazteek boluntariora-jardueretan parte hartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 2. artikuluan zehaztutakoarekin bat etorriz, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila da Administrazio Orokorren egitura osatzen duen sailtako bat.

Ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailari dagozkio, besteak beste, gazteei eta emantzipazioari buruzko egitekoak eta jardun-arloak.

Ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren zortzigarren xedapen gehigarriak xedatzen duenez, irautitako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Politiketako Sailburuordetzako organo eta unitateek eta Lehendakarietako lehengo egiturako Gazteria Zuzendaritzak osatuko dute lehen aipatutako saila.

Bestalde, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 14.2 artikulua zehazten duenez, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailburuordetzaren mende dago Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritza.

«Auzolandegiak» programa bi deialdik osatzen dute. Lehenengoak Euskadin egingo diren gazte-azulandegietako proiektuak hautatzeko oinarriak arautzen ditu eta horretarako deialdia egiten du; bigarrenak, berriz, Euskadiko gazteek beste lurralde batzuetako azulandegietan parte hartu ahal izateko deialdia egiten du eta izena emateko oinarriak arautzen ditu.

Arau-esparru horretatik abiatuta, eta jardun-arlo horretan inplikatur dauden erakundeen eskumenak errespetatuz, Eusko Jaurlaritzak gazte-azulandegien programa bat kudeatzen du Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzaren bitartez.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren «Auzolandegiak» programa arautzea eta programaren 2026. urterako plazen deialdia egitea, agindu honen I. eranskinean aurreikusitakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren agindu honek administrazio-bidea amaitzen du eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko organo horri, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 12a.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN
«AUZOLANDEGIAK» PROGRAMAREN 2026. URTERAKO PLAZEN DEIALDIA

OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren «Auzolandegiak» programa arautzea eta programaren 2026. urterako plazen deialdia egitea.

Bigarrena.– Definizioa.

1.– Hona gazte-auzolandegitzat zer hartzen den: hainbat jatorritako gazteen talde batek beren borondatez eta eskuzabaltasunez konpromisoa hartzen dute gizarte-proiektu bat eta jarduera osagarriak garatzeko, denbora-tarte jakin batean. Proiektua bitarteko bat da balio hauek sustatzeko: bizikidetzaz, tolerantzia, elkartasuna, parte-hartzea eta kultura arteko ikaskuntza, besteak beste.

2.– Gazte-auzolandegietan parte hartzen duten pertsonen ostaturia eta mantenu osoa izango dute.

3.– Deialdi honetan eskaini diren gazte-auzolandegietan parte hartzen duten pertsonen ostaturia izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta INJUVEk adostutako istripu-aseguruen eta erantzukizun zibileko aseguruen kontratuetan erabakitako baldintzetan.

4.– Euskadiko auzolandegietan, auzolandegi bakoitzeko arauak eta protokoloak bete beharko dituzte parte-hartzaileek.

5.– Beste autonomia-erkidego batzuek edo Nazioarteko Boluntariotza Zerbitzuak antolatutako gazte-auzolandegietan (autonomia-erkidegoen eta Nazioarteko Boluntariotza Zerbitzuen arauen arabera antolatuko direla), Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritza bitartekaria izango da gazteen eta autonomia-erkidegoaren edo entitate antolatzailearen artean. Gainera, alderdi hauek ez dira izango Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzaren erantzukizuna: behin betiko onarpena, data-aldaketa, txandak bertan behera uztea, ostaturia, mantenua, lan-orduak, denbora librearen antolaketa edo kuota itzultzea. Beste autonomia-erkidego batzuetako edo atzerriko auzolandegietara joaten diren pertsonen ostaturia izango da sartzeko eta bertan egoteko betekizun, arau eta protokoloak bete beharko dituzte. Horrek gastu gehigarria ekar dezake eta harrera-erakundeak gastu hori bere gain hartzen ez badu, interesdunaren kontura izango da.

6.– Gazte-auzolandegiaren tokiraino lekualdatzea parte-hartzaileen kontura izango da. Halaber, parte-hartzaileen erantzukizuna izango da, nazionalitatea kontuan hartuta, gazte-auzolandegiaren atzerriko herrialdean sartzeko behar diren agiri guztiak eskuratzea.

7.– Deialdi honen parte-hartzaileek gazte-auzolandegi batean baino gehiagotan parte hartu ahal izango dute, beti ere plaza bat edo gehiago Euskal Autonomia Erkidegoko auzolandegietan bada. Horretarako, agindu honetan ezarritako prozedura beteko da, eta izena emateko eskatutako agiriak bitarteko elektronikoen bidez bidali beharko zaizkio Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzari, kuota ordaindu eta gero.

Hirugarrena.– Eskainitako plazei buruzko informazioa.

1.– Deialdi honetan eskainitako gazte-azolandegiak Euskal Autonomia Erkidegoan, estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan eta, ahal izanez gero, beste herrialde batzuetan egingo dira.

Adingabeei, Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste erkidego batzuetako auzolandegietan eskainiko zaizkie plazak.

Bi leku hauetan kontsulta daitezke eskainitako plazak: <https://www.gazteaukera.euskadi.eus> atarian eta Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzan (Donostia-San Sebastian kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan eskaintzen diren eta nazioartekoak ez diren gazte-azolandegietan eskainitako plazen % 10 aniztasun funtzionala duten pertsonentzat gordeko dira, auzolandegiaren jarduera motaren arabera.

3.– Aniztasun funtzionala duten pertsonak laguntzaile bat izango dute gazte-azolandegian dauden bitartean.

4.– Eskainitako plazen zerrenda aldatu egingo da eskaerak aurkezteko epea hasten denetik aurrera, plazak erreserbatu ahala kenduko direlako eta plaza gehiago eskain daitezkeelako.

5.– Hiru leku hauetan kontsulta daiteke «Auzolandegiak» programari buruzko informazioa: <https://www.gazteaukera.euskadi.eus> atarian, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Informazio Zerbitzuetan eta Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzan (Donostia-San Sebastian kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Laugarrena.– Plaza lortzeko betekizunak.

Betekizun hauek bete behar dira deialdi honen arabera plaza lortzeko gazte-azolandegi batean:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta egotea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu baino lehen.

b) Europar Batasunekoak ez diren pertsonen kasuan, dagokien bizileku-baimena izatea eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta egotea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu baino lehen. Europar Batasunekoak ez diren eta bizileku-baimenik ez duten pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko auzolandegietan baino ezin izango dute parte hartu.

c) Eskatutako gazte-azolandegian parte hartu ahal izateko adierazitako adina izatea auzolandegia hasten den egunean eta auzolandegi guztian zehar.

d) Eskaera egiten denean emantzipatu gabe dauden eta 16 urte baino gehiago duten gazteen kasuan, guraso-ahala edo tutoretza duen pertsonaren adostasuna izatea; 16 urtetik beherako kasuan, guraso-ahala edo tutoretza duenaren berriarazko baimena izatea.

Adingabearen gurasoak epai judizial irmo baten bidez bananduta edo dibortziatuta badaude, horren berri jasoko da izena emateko eskaeran, eta epai irmoa beteko da, izena emateko prozedura osoan eta adingabea auzolandegian dagoen bitartean. Epai irmorik gabeko banantze- edo dibortzio-prozesuen kasuan, behin-behineko akordioa bete beharko da.

e) Eskaera eta izen-ematea adierazitako garaian eta moduan eginda izatea.

f) «Auzolandegiak» programan izena emateko kuota ordainduta izatea.

g) VII. eranskinean agertzen den osasun-fitxa beteta izatea.

h) Aniztasun funtzionala duten pertsonen kasuan, desgaitasun-ziurtagiria aurkeztuta eta VIII. eranskinean agertzen den informazio pertsonalaren fitxa beteta izatea.

i) Adingabeekin harremana izatea eskatzen duten jarduerak dituzten gazte-auzolandegien kasuan, sexu-delituengatik kondenaarik ez izatea. Hori egiaztatzeko, Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, edo, atzerritarren kasuan, haren jatorrizko herrialdeak emandako pareko agiria. Halakorik existitzen ez bada, aurrekari penalen egiaztagiria aurkeztu beharko da, zeinetan ezin izango baita jaso sexu-delituei buruzkorik.

j) Ezin izango dute izena eman azken hiru deialdietako batean plaza bat esleitu eta auzolandegira joan ez diren pertsonak, aldezturik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzari uko egin diotela jakinarazi dioten pertsonen kasuan izan ezik. Era berean, ezingo dute Euskadiko auzolandegietan parte hartu 2025eko edizioan kanporatuak izan ziren pertsonak.

k) Aniztasun funtzionala duten pertsonak betetzeko plazak Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta dauden gazteentzat gordetzen dira.

Bosgarrena.– Aurreinskripzio-eskaerak eta plaza eskatzeko eskaerak aurkezteko epea.

Gazte-auzolandegietan parte hartzeko interesa duten pertsona guztiek telematikoki egin beharko dute aurreinskripzio-eskaera. Eskaerak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoak erabili beharko dira. Hemen dago zehaztuta zein diren bitarteko horiek: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ordezkaritza baten bidez ere egin ahal izango dira izapideak elektronikoki. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Ahalordeen Erregistro elektronikoa eman beharko du izena ordezkariak, hemen: <https://www.euskadi.eus/ordezkaritza>

Seigarrena.– Eskaerak izapidetzea.

Hiru prozedura erabiliko dira eskaerak izapidetzeko: Euskadiko eta Estatuko auzolandegietarako txanda irekia, atzerriko auzolandegietarako txanda irekia eta aniztasun funtzionala duten pertsonen txanda.

1.– Euskadiko eta Estatuko auzolandegietarako txanda irekia.

1.1.– Aurreinskripzio-eskaera.

Auzolandegietan parte hartzeko interesa duten pertsonak telematikoki egin beharko dute aurreinskripzio-eskaera, <https://www.gazteaukera.euskadi.eus> atariko auzolandegiei buruzko atalean eta <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0125609> atarian dagoen formularioa erabiliz. Hori egin ostean, aurreinskripzio horren erreferentzia bat esleitu behar da. Interesdun bakoitzak aurreinskripzio-eskaera bakarrik aurkeztu ahal izango du. Formularioa betetzean okerren bat egonez gero, izangaia Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzarekin jarri beharko da harremanetan.

Aurreinskripzio-eskaerak baliogabetuko dira baldin eta pertsona batek eskaera bat baino gehiago egin duela antzematen bada, eskaerak behar bezala beteta ez badaude edo eskatzaileek gazte-auzolandegietan plaza lortzeko betekizunak betetzen ez badituzte deialdi honen arabera.

Aurreinskripzio-eskaera egiteko unean adin nagusikoak edo legez emantzipatutako 16 urtetik gorakoak ez diren pertsonak eskatzailearen aitaren/amaren/tutorearen adostasuna edo baimena aurkeztu beharko dute (VI. eranskina), laugarren oinarriaren d) apartatuan dagokionaren arabera.

1.2.– Zozketa.

Jasotako aurreinskripzio-eskaerak egiaztatu ondoren, aurreinskripzioa egin dutenen zerrenda argitaratuko da, zozketarako esleitutako zenbakia zehaztuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>). Aurreinskripzioa egin duten pertsonak mezu elektronikoa bat jasoko dute (iragarki-taularako sarbidea jakinarazteko), baita SMS pertsonalizatu bat ere (esleitutako zenbakia jakinarazteko).

Jasotako eta egiaztatutako aurreinskripzio guztien arteko zozketa egingo da, notarioaren aurrean.

Zozketan zenbaki bat aterako da, eta zenbaki horretatik aurrera hasiko da eskatzaile bakoitzari egun eta ordu bat ematen, aplikazioan sartu eta gazte-azulandegia hauta dezaten, <https://www.gazteaukera.euskadi.eus> helbidean sartuta.

Zozketan ateratako zenbakia duena izango da lehenengoa azulandegia hautatzen, eta hortik aurrerakoek emango zaie aukera, ondoz ondo, deialdian eskainitako plazen bikoitza gehi beste berrogei osatu arte.

Eskainitako plazen bikoitza baino aurreinskripzio-eskaera gehiago egonez gero, zozketan aplikazioan sartzeko txanda lortzen ez dutenek ezin izango dute deialdi honetan izena eman, artikulua honetako 1.3 eta 1.4 puntuetan aurreikusitako epealdietan izan ezik.

Deialdian eskainitako plazak aurreinskripzio-eskaerak baino gehiago izanez gero, eskaera guztiei emango zaie aplikazioan sartzeko txanda.

Zozketa egin ondoren hitzordua lortu duten eskatzaile guztiek mezu elektronikoa bat eta SMS bat jasoko dituzte. Horien bidez, lortutako hitzordu-hurrenkeraren berri emango zaie, baita gazte-azulandegia hautatzeko eta izena emateko eguna eta ordua ere. Informazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean ere egongo da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

Zozketaren emaitza, esleitutako eguna eta ordua zehaztuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa argitaratuko da, eta Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzan ere kontsultatu ahal izango da (Donostia-San Sebastian kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

1.3.– Izen-ematea edo inskripzioa.

Esleitutako eguna eta ordua aintzat hartuta, aplikazioan sartu beharko da (<https://www.gazteaukera.euskadi.eus> bidez) une horretan eskuragarri dauden plazen artean bat hautatzeko. Denbora-tarte nahikoa egongo da plaza hautatzeko eta horretan izena emateko. Denbora agortu eta plaza hautatu ez bada, galdu egingo dira bai txanda, bai izena emateko aukera.

Gazte-azulandegia hautatzen hasi aurretik, eskatzaileak bere lehentasunen arabera antolatuta izan beharko ditu aukerak; izan ere, eskatzaile bakoitzak denbora-muga bat izango du, eta plazak agortu egiten dira.

Plaza hautatu ondoren, titularra inskribatuta geratuko da.

Plaza bat eskatzen denean, kendu egingo da eskuragarri dauden plazen artetik, izena emateko kuota ordaintzeko epeak iraun bitartean.

Zozketan esleitutako egun eta orduan izena ematen ez duten eskatzaileek txanda galduko dute.

Baldin eta izena emateko epean Euskadiko gazteentzat esleitutako plazaren bat libre geratzen bada, aurreinskripzioa egin baina izena emateko eguna eta ordua lortu ez duten pertsonak epe gehigarri bat izango dute aplikazioan sartu eta plaza bat lortzeko plazaren bat libre duten auzolandegietan. Gazteaukeran jakinaraziko da zein egun eta ordutan hasi eta amaituko den epe hori.

Plazak agortzen direnean, <https://www.gazteukera.euskadi.eus> webgunean jakinaraziko da, eta izena emateko prozesua itxiko da.

1.4.– Bete gabeko plazak (bigarren aukerako fasea).

Izena emateko epea amaitutakoan, plaza hutsik geratuz gero, <https://www.gazteukera.euskadi.eus> webgunean jakinaraziko da, eta denbora-tarte bat utziko da interesdunek plaza erreserbatu ahal izan dezaten, horretarako adieraziko den telefono-zenbakira deituta. Bigarren aukerako fase honetan, autonomia-erkidego guztietan hutsik geratu diren plazak eskainiko dira. Aurreinskripzioa egin arren plazarik lortu ez duten guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Plazak erreserbatu ahala, zerrendatik kentzen joango dira.

Ezarritako epearen barruan aurreinskripzio-eskaera egin ez zutenek ere izango dute aurreinskripzioa egiteko aukera. Horretarako, aurreinskripzio-formularioa bete beharko dute (<https://www.gazteukera.euskadi.eus> bidez), eta agiriak erantsi (7. artikulua). Behin informazioa beteta, aurreko paragrafoan aipatutako telefono-zenbakira deitu beharko dute plaza erreserbatzeko.

2.– Atzerriko auzolandegietarako txanda irekia.

Atzerriko gazte-auzolandegietan parte hartu nahi dutenak nazioarteko auzolandegiak hautatzeko aplikaziora sartu beharko dira Gazteaukeraren webgunearen bidez (<https://www.gazteukera.euskadi.eus>). Interesdunek hiru auzolandegi hautatu ahal izango dituzte gehienez, lehentasun-ordena zehaztuta.

Lehentasun-ordenari jarraikiz, plazarik dagoen ala ez dagoen galdetuko zaie nazioarteko entitateei. Auzolandegi batean plaza hutsik ez badago, automatikoki egingo da eskaera hurrengo aukerarako.

Eskaera bidaltzeak ez du esan nahi auzolandegian izena eman denik, eta nazioarteko entitateak hautagaia onartu duenean bakarrik geratuko da inskribatuta pertsona hori. Ondoren, Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritza harremanetan jarriko da gaztearekin, ordainketa egin dezan, agindu honen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Nazioarteko entitateek onartutako eskaerak egin dituzten pertsonak Gazteaukeraren bidez erregistratu beharko dira, Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzak adierazitako aplikazioan eta epean, 7.2 eta 7.3 artikuluetako datuak egiaztatu ahal izateko.

Nazioarteko auzolandegietan parte hartu ahal izateko, 18 urte baino gehiago izan behar da auzolandegiaren hasieran.

3.– Aniztasun funtzionala duten pertsonentzako txanda.

3.1.– Plaza-eskaera.

Aniztasun funtzionala izan eta gazte-auzolandegietan parte hartzeko interesa duten pertsonak telematikoki egin beharko dute aurreinskripzio-eskaera, <https://www.gazteukera.euskadi.eus> ata-

riko gazte-azolandegiei buruzko atalean eta <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0125609> atarian dagoen formularioa erabiliz. Hori egin ostean, aurreinskripzio horren erreferentzia bat esleituko zaie. Aniztasun funtzionala duten pertsonen plazak dituzten azolandegi zehatzetako bat hautatu beharko dute.

Interesdun bakoitzak aurreinskripzio-eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du. Formularioa betetzean okerren bat egonez gero, Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzarekin jarri beharko da harremanetan.

Aurreinskripzio-eskaerak baliogabetuko dira baldin eta pertsona batek eskaera bat baino gehiago egin duela antzematen bada, eskaerak behar bezala beteta ez badaude edo eskatzaileek gazte-azolandegietan plaza lortzeko betekizunak betetzen ez badituzte deialdi honen arabera.

Aurreinskripzio-eskaera egiteko unean adin nagusikoak edo legez emantzipatutako 16 urtetik gorakoak ez diren pertsonen eskatzailearen aitaren/amaren/tutorearen adostasuna edo berariazko baimena aurkeztu beharko dute (VI. eranskina), laugarren oinarriaren d) apartatuan dagokionaren arabera.

3.2.– Zozketa eta plazaren erreserba.

Jasotako aurreinskripzio-eskaerak egiaztatu ondoren, aniztasun funtzionala duen pertsona batek edo bik baino ez badute eskatu azolandegi eta txanda zehatz bat, zuzenean erreserbatuko zaie plaza, eskaerak egiteko epea amaitu ondoren.

Azolandegiren baterako plaza baino eskaera gehiago dagoenean baino ez da egingo da zozketa. Zozketa bidez zehaztuko da zer ordenatan igaroko diren aurreinskripzio-eskaerak hautatutako azolandegian inskribatuta egotera. Aurreinskripzioa egin dutenen zerrenda, zozketarako esleitutako zenbakia eta eskatutako azolandegia zehaztuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa argitaratuko da (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>). Aurreinskripzioa egin duten pertsonen mezu elektronikoa jasoko dute (iragarki-taularako sarbidea jakinarazteko), baita SMS pertsonalizatu bat ere (zozketan esleitutako zenbakia jakinarazteko).

Aniztasun funtzionala duten pertsonentzat erreserbatutako plazak hutsik geratuz gero, beste azolandegi batean izena eman baina nahi zuten plaza lortu ez zutenei eskainiko zaizkie. Plaza huts horiek esleitzeko, zozketaren ondoren emandako ordenari jarraituko zaio. Plazak agortzen direnean edo eskatzaile guztiei eman zaienean plaza hautatzeko aukera, <https://www.gazteaukera.euskadi.eus> webgunean jakinaraziko da, eta izena emateko prozesua itxiko da.

Bigarren aukerako fasean, aniztasun funtzionala izan eta ezarritako epearen barruan aurreinskripzio-eskaera egin ez zuten pertsonen ere izango dute aurreinskripzioa egiteko aukera, baldin eta plaza hutsak badaude aniztasun funtzionala duten pertsonentzako plazak dituzten Euskadiko azolandegietan eta horietan parte hartu nahi badute. Horretarako, aurreinskripzio-formularioa bete beharko dute (<https://www.gazteaukera.euskadi.eus> bidez), eta agiriak erantsi (7. art.). Behin informazioa beteta, telefono-zenbaki batera deitu beharko dute plaza erreserbatzeko. Estatu mailako azolandegietan, aniztasun funtzionala duten pertsonen kopurua ezin izango da % 10 baino handiagoa izan.

Zazpigarrena.– Izen-emateak izapidetzea.

1.– Izena emateko kuota ordaintzea.

Eskaera txanda irekian egin duten interesdunek izena emateko kuota ordaindu beharko dute, eta ordainagiria aurkeztu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elek-

tronikoko «Nire karpeta» ataletik (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>), bi egun naturaleko epean, plaza hautatu eta hurrengo egunetik aurrera. Kuota ordaindu ondoren, eskatzailearen izenean erreserbatuta egongo da plaza.

Nazioarteko auzolandegien kasuan, bi egun naturaleko epean egin beharko da ordainketa, plazaren erreserba egiaztatzen denetik aurrera, eta plaza erreserbatuko da Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzak adierazitako aplikazioan erregistratu ondoren.

Aniztasun funtzionala duten pertsonen kasuan, bi egun naturaleko epean egin beharko da ordainketa, plazaren erreserba egiaztatzen denetik eta eskatutako agiriak, «Nire karpeta» atalaren bidez, Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzari aurkezten zaizkionetik aurrera.

Euskadin eta nazioarteko auzolandegietan, 110 euroko kuota ezarriko da, halaxe baitago ezarrita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programan izena emateko kuotaren prezio publikoa ezartzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko apirilaren 1eko Aginduan.

Gainerako autonomia-erkidegoetan, bakoitzean indarrean dagoen izena emateko kuota ordaindu beharko da.

Atzerriko gazte-auzolandegi batzuek ordainketa gehigarria ezartzen dute (kuota gehigarria). Horiek ez dagozkio Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari, eta eskudirutan ordaindu beharko dute boluntarioek auzolandegira heltzen diren lehenengo jarduera-egunean.

2.– Izena emateko beharrezko agiriak.

Izena eman eta bi eguneko epean bidali beharko dira agiri hauek Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzara, «Nire karpeta» atalaren bidez:

a) Izena emateko kuotaren ordainagiria.

b) Guraso-ahala edo tutoretza duenaren adostasuna, emantzipatu gabeko 16 urtetik gorako pertsonen kasuan, edo guraso-ahala edo tutoretza duenaren berariazko baimena, 16 urtetik behar-rakoen kasuan.

c) Parte-hartzailearen osasun-fitxa.

d) Behar izanez gero, aniztasun funtzionalaren ziurtagiriaren kopia.

e) Aniztasun funtzionala duten pertsonen, osasun-txartelaren kopia.

f) Aniztasun funtzionala duten pertsonen, informazio pertsonalaren fitxa, beteta.

g) AIZik ez daukaten atzerritarrek, pasaportearen kopia.

h) Europar Batasunekoak ez diren pertsonen, pasaportearen kopia.

i) Atzerritarrek, adingabeekin harremana izatea eskatzen duten jarduerak dituzten gazte-auzolandegien kasuan, sexu-delituengatik kondenaarik ez duela ziurtatzeko Sexu-delitugileen Erregistro Zentralak ematen duen ziurtagiriaren pareko agiria, haien jatorrizko herrialdeak emana. Halakorik existitzen ez bada, aurrekari penalen egiaztagiria aurkeztu beharko da, zeinetan ezin izango baita jaso sexu-delituei buruzkorik.

3.– Organo instrukzio-egileak ofizioz kontsultatu ahal izango ditu nortasun-datuak (NANa, AIZa), salbu eta interesdunak edo haren ordezkariak, aurreinskripzioa egiteko unean adin txikiko diren kasuan, horren aurka egiten badu modu arrazoituan. Aurka eginez gero, onuradunak aurkeztu

beharko ditu dagozkion ziurtagiri eguneratuak. Errolda historikoa, egoitzari buruzko datuak eta Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa kontsultatzeko, hala badagokio, aldez aurreko baimena beharko da. Aurka eginez gero, agiriak aurkeztu beharko dira, Auzolandegiak 2026 programaren deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren emandako agiriak, hain zuzen ere.

4.– Izen-emateak ezeztatzea.

Kasu hauetan baliogabetuko dira izen-emateak:

- Aurreinskripzio-eskaeraren formularioan emandako datuak ez badatoz bat identifikazio-datuekin.
- Izena emateko kuota ordaindu ez bada ordaintzeko epea igaro aurretik.
- Eskatutako agiriak aurkezteko epea igarota horiek aurkeztu ez badira, edo interesdunak berariaz eta idatziz eskatu badu.
- Ez bada parte-hartzailearen osasun-fitxa aurkeztu, edo, aniztasun funtzionala duten pertsonen kasuan, informazio pertsonalaren fitxa.
- Nazioarteko auzolandegietan, Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzak aplikazioan izena emateko eskaera egin ondoren, izen-emate hori egiten ez bada, edo, datuak egiaztatu ondoren, plazaren esleipenduna izateko baldintzak betetzen ez badira.

Zortzigarrena.– Eskaeretako akatsak zuzentzea.

Izena emateko eskaeraren izapideak onartzeko eskatzen diren agiri batzuk falta direla edo horietan forma-akatsak daudela ikusiz gero, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari, huts-egitea konpondu edo aginduzko agiriak aurkez ditzan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>), eta jakinaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela edo izapideak egiteko eskubidea galdu duela ulertuko dela; betiere, hartarako, aldez aurretik ebazpen bat emango da.

Bederatzigarrena.– Plazak behin betiko esleitzea.

1.– Agindu honen 7.2 eta 7.3 artikuluetan ezarritako agiriak Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzan badaude, eskatutako plaza esleituko da. Interesdunari berariaz jakinarazteaz gain –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>)–, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren ebazpen batekin ere emango da jakitera plazen esleipena, gehienez sei hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa argitaratu (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-eletronikoa>) eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Aginduak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Plaza esleituta duten pertsonak gazte-azulandegira ez joatea erabakitzen badute, Eusko Jauraritzaren Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzari jakinarazi beharko diote lehenbailehen, «Nire karpeta» atalaren bidez.

Hamargarrena.– Deialdiaren izapidetzearen inguruko argitalpenak zer bitartekoren bidez egingo diren adieraztea.

Hemen egingo dira deialdi honen izapidetzearen inguruko argitalpenak: <https://www.gazteak.euskadi.eus> atarian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa eta Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzaren iragarki-oholetan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Hamaikagarrena.– Plazari uko egitea eta izena emateko kuota itzultzea.

1.– Parte-hartzaileak edozein unetan egin diezaike uko plazari, gazte-azulandegia hasi aurretik. Horretarako, uko egiteko formularioa bete eta elektronikoki sinatu beharko du, eta espedientari erantsi, «Nire karpeta» atalaren bidez (ikus IV. eranskina).

2.– Gainera, kuota itzultzeko eskubidea badu, dagokion formularioa bete, elektronikoki sinatu eta espedientera erantsi beharko du, «Nire karpeta» atalaren bidez (ikus V. eranskina).

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko eta atzerriko gazte-azulandegietan izena emateari dagokion prezio publikoa itzultzeko, irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen testu bateginaren 34.6 artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio. Hau da, kasuan kasuko zenbatekoa itzuliko da, prezio publikoa ordaindu behar duen pertsonari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, jarduera egiten ez denean edo zerbitzua ematen ez denean, deialdi honetan ezarritako gainerako betekizunak betetzen badira.

4.– Parte ez hartzeko arrazoia administrazioari egotzi ezin zaionean, alderdi hauek egiaztatu beharko dira:

4.1.– Gazte-azulandegian parte hartzea eragozten duen arrazoia hauetakoren bat izatea:

- a) Gazte-azulandegira joatea eragozten dion gaixotasun edo istripuren bat izatea gazteak.
- b) Odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senide bat gaixorik egotea edo hiltzea.
- c) Beste ezinbesteko kausa batzuk, behar bezala justifikatuta.

4.2.– Ordainketa egin behar duen pertsonari egotzeko moduko arrazoitzat joko dira (eta, ondorioz, ez zaio kuotarik itzuliko) 7. oinarriko 2. eta 3. puntuetan eskatutako agiriak epez kanpo bidali izana edo agiriak bidali ez izana, lanpostu bat lortu izana, eskola-emitza txarrak lortu izana edo azulandegiaren data berean egingo den beste jarduera-programaren batean plaza eskuratu izana.

4.3.– Azulandegia hasi aurretik, gazte-azulandegiko plazari uko egiteko orria aurkeztea (agindu honen IV. eranskina), beteta eta elektronikoki sinatuta, Gazteria eta Emantzipazioko zuzendariari, «Nire karpeta» atalaren bidez.

Helbide honetan eskuratu daiteke uko egiteko orria: www.euskadi.eus/zerbitzuak/0125609.

4.4.– Kuota itzultzea eskatu nahi duen pertsonak agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu, «Nire karpeta» atalaren bidez, 2026ko irailaren 30a baino lehen:

- a) Kuota itzultzeko eskaera-orria (agindu honen V. eranskina), beteta.

b) Gazte-azolandegian parte hartzea eragozten duen inguruabarraren justifikazio fede-emaila, hala badagokio, dagokion organismo publikoak egindako ziurtagiriaren bidez.

c) Prozedura honetako organo instrukzio-egileak hirugarrenaren datuak kontsultatu ahal izango ditu informazio hori organo-instrukzio egilearen artxiboetan badago, salbu eta interesdunak aurka egin eta baimenik ematen ez badu. Aurka eginez gero, hirugarrenaren (gazte-azolandegian izena emandako pertsonaren) datuen alta-orria aurkeztu beharko da, behar bezala beteta eta elektronikoki sinatuta; helbide honetan eskuratu daiteke: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak/>

Kuota itzultzeko eskaera-orria eta hirugarrenaren datuen alta-orria www.euskadi.eus/zerbitzuak/0125609 helbidean eskuratu daitezke, eta «Nire karpeta» atalaren bidez erantsi beharko dira.

5.– Gaztea gazte-azolandegian parte hartzen hasi ondoren, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan baino ez da itzuliko kuota. Kasu horietan, parte hartu ez den egunei dagokien zenbateko proportzionala itzuliko da. Egun horiek azolandegiaren txandaren iraupenaren % 50 izan behar dira gutxienez.

6.– Kuota itzultzeko eskaerak Gazteria eta Emantzipazioko zuzendariak ebatziko ditu, bi hilabeteke epean (2 hilabete), aurkezten diren egunetik aurrera.

7.– Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetako gazte-azolandegietan izena emateko ordaindutako zenbatekoak itzultzeko, hala izanez gero, autonomia-erkidego horietan kuotak erregulatzeko arauetan ezarritakoa beteko da.

8.– Nazioarteko azolandegietan, kuota ez da itzuliko, baldin eta, Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzak adierazitako aplikazioan erregistratzeko eskatuta, erregistroa egiten ez bada, ezeztatu egingo baita aurrez onartutako azolandegiko partaidetza.

Hamabigarrena.– Jarduera bertan behera uztea.

Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzak bertan behera utz dezake Euskal Autonomia Erkidegoan egin behar zen gazte-azolandegi bat, beharrezkotzat jotzen badu ikuspuntu teknikoan eta aukeran oinarrituta. Horretarako, Gazteria eta Emantzipazioko zuzendariak alde aurretik emandako aldeko ebazpena behar da.

